LEHENENGO KARLISTALDIA

Lehenengo karlistaldia –edo gerra karlista– 1933-1940 urte bitartean gertatu zen Espainia osoan, baina, bereziki, Euskal Herrian, Kataloinian eta Maestrazgoa deritzon lurraldean.

Gerra horren baitan, 1837ko irailaren 14an borroka odoltsua izan zen Andoaingo kaleetan eta inguruetan (Urnieta, Hernani...) gudaroste karlista eta liberalen artean. 800 gizon inguru hil zen borroka horietan eta herriak hondamendi handia jasan zuen, besteak beste 50 baserri guztiz kiskali baitzituzten Andoainen. Egun hartan izandako borrokari *Andoaingo gudua* deitzen diogu...

Euskal Herrian sei urtez luzatu zen gerra hartan, berriro ere euskal emakumeek mota guztietako zoritxar, nekealdi eta bortxakeriak jasan behar izan zituzten... Ez zuten guda-lerrora joan behar izaten borrokara. Euren borroka atzeko fronte ezkutu eta bortitzean ematen zen. Haientzat ez zen dominarik, ez esker onik.

Lehenengo karlistaldiko ondorio galgarri guztiak isilean, etsipenez baina kementsu jasan zituzten emakumeei eskaintzen diegu erakusketa hau, EMAKUMEAK ERE BERTAN BAITZIREN, eta, gainera, handia da EMAKUME ASKO EGITEN ARI DIREN LANA azken urte hauetan gudu horren gorabeherak ezagutzera emateko, Andoaingo guduko jostunak, esate baterako.

PRIMERA GUERRA CARLISTA

La primera guerra carlista tuvo lugar en toda España entre 1833 y 1840, pero, de manera más intensa en el País Vasco, Cataluña y la zona del Maestrazgo.

En pleno conflicto, el 14 de septiembre de 1837 tuvo lugar una sangrienta batalla entre las tropas carlistas y liberales en las calles y alrededores de Andoain. Cerca de 800 hombres murieron en estos combates y el pueblo sufrió un auténtico desastre, ya que, entre otras pérdidas, 50 caseríos fueron incendiados y totalmente arrasados.

En esta guerra, que en el País Vasco se prolongó durante seis años, las mujeres volvieron a sufrir todo tipo de desgracias, penurias y violencias, aun cuando no fueran movilizadas al frente.

Dedicamos esta exposición a las mujeres que, silentes en su sufrimiento, desesperadas pero enérgicas, soportaron las penurias de la primera guerra carlista, las de la Batalla de Andoain, en la que también estuvieron presentes y, de hecho, hoy lo siguen estando, ya que gracias al trabajo de estos últimos años de muchas mujeres se han podido recrear y divulgar desde 2013 los avatares de aquella batalla.

¿POR QUÉ LA PRIMERA GUERRA CARLISTA?

A finales del siglo XVIII, la Revolución Francesa insufló vientos liberadores y transformadores por toda Europa.

En España, al final del reinado de Fernando VII hubo enfrentamientos y luchas entre partidarios del Antiguo Régimen y partidarios del Régimen Liberal establecido por la Constitución de Cádiz de 1812.

Los primeros, ante la proximidad de la muerte de Fernando VII, se organizaron en torno a su hermano, el infante Carlos, quien deseaban fuera el próximo monarca, y no así la heredera de Fernando, su hija Isabel. Las facciones liberales optaron por Isabel II, considerándola la solución más prudente.

Así pues, fallecido el rey el 29 de septiembre de 1833, los partidarios de su hermano Carlos lo proclamaron rey y ello dio origen al estallido de la guerra en toda España.

LEHENENGO KARLISTALDIA ZERGATIK?

Frantziako Iraultzak Europa osoan barrena haize berritzaile eta eraldatzaileak zabaldu zituen XVIII. mende amaieran.

Espainian, Fernando VII.aren erregealdi amaieran liskarrak eta borrokak izan ziren tradizio eta lege eta usadio zaharren aldekoen eta berrikuntza eta lege askatzaileen aldekoen artean.

Lehenak, Fernando VII.aren heriotza hurbil zekusatenez, bere anaia Carlosen inguruan antolatu ziren, hura nahi baitzuten errege berria eta ez Fernandok izendaturiko bere alaba Isabel. Liberalek, ordea, Isabel II.a erregin izan zedin nahi zuten, irtenbiderik zuhurrena zelakoan.

Horrela, bada, Fernando VII.a hil ondoren Isabel II.a erregin izendatu bezain laster, erregearen anaia Carlosen aldekoek berau errege aldarrikatu zuten eta gerra piztu zen Espainia osoan, 1833. urteko irailaren 29an.

ANTZINAKO BIZIMOLDEA ETA ILUSTRAZIOAREN ONDORENGO BURGESIA BERRIA

Baina funtsean gerra sortarazi zuena Espainiako gizartean gertatzen ari zen sakoneko aldaketa zen. Ilustrazioarekin etorritako aurrerabideak aldaketak eragiten ari ziren eta burgesia ilustratu berria izugarri indartzen ari zen Erdi Arotik nagusi ziren jauntxoen eta gizarte egituren aurrean. Burgesia berri horrek bere lekua eskatzen zuen Espainiako egitura politiko eta ekonomikoan eta haustura sortu beharra zegoen, nola edo hala, aldarrikatzen zituen ideia askatzaileen inguruan.

EL ESTILO DE VIDA ANTIGUO Y LA NUEVA BURGUESÍA DESPUÉS DE LA ILUSTRACIÓN

Pero lo que en el fondo encendió la guerra fue la transformación que se estaba produciendo en la sociedad española. Los avances tecnológicos y el progreso en muchos órdenes, impulsado por la Ilustración, habían provocado cambios y la nueva burguesía ilustrada se hallaba fortalecida frente al sistema señorial y las estructuras sociales que dominaban desde la Edad Media. Esta nueva burguesía exigía su espacio en la estructura política y económica de España y para ello debía forzar una ruptura con el Antiguo Régimen en torno a las ideas liberales que proclamaba.

EUSKAL HERRIKO FORUAK

Euskal Herrian indarrean genuen legedia, gure foruak, ez ziren gerra piztu zuten arrazoi nagusien artean izan, baina, zeharka, apurka-apurka berealdiko garrantzia hartu zuten. Indar liberalek murriztu eta aldatu nahi zituzten, denbora eta testuinguru ekonomiko berrietara egokitu. Carlosen inguruan bildu ziren indar tradizionalistek, ordea, haien aldeko defentsa sutsua egin zuten.

Euskal Herrian gerrari amaiera emateko funtsezko gai bihurtu ziren foruak, antzinako bizimoduarekin jarraitu ahal izateko berme eta oinarri gisa.

LOS FUEROS DEL PAÍS VASCO

El sistema jurídico-legal propio vigente en el País Vasco, los Fueros del País, no fueron uno de los motivos que desencadenaron la guerra, pero, transversalmente, fueron adquiriendo una importancia extraordinaria durante el conflicto. Las fuerzas liberales deseaban, en el mejor de los casos, modificar el corpus foral, reducir su alcance y adaptarlo a los nuevos tiempos y contextos económicos. Sin embargo, las fuerzas tradicionalistas que se agruparon en torno a Carlos de Borbón hicieron una encendida defensa de los mismos.

Los fueros se convirtieron en un tema clave para poner fin a la guerra en el País Vasco, como garantía y fundamento de poder dar continuidad al sistema de vida tradicional.

ELIZAREN JARRERA EZINBESTEKOA

Eliza katolikoko kideek, oro har, karlismoaren aldeko jarrera hartu zuten erdi eta behe mailetan, behinik behin. Ez, ordea, Espainia osoan; liberalismoa nagusitu zen guneetan erdi eta goi-mailako elizgizon eta emakumeek Isabel II.aren alde egin zuten maiz.

Euskal Herriko eliza nagusiki Carlos erregegaiaren aldeko izan zen eta elizarekin batera euskal herritargoa, euskal hiriburuetakoa, nafar Erribera eta ekialdekoa eta beste gune jakin batzuetakoa izan ezik.

Gipuzkoa, Donostia izan ezik, lurralde osoa Carlos erregegaiaren aldekoa zela esan liteke.

POSTURA DE LA IGLESIA

Los miembros de la Iglesia Católica, en sus estratos bajo y medio, se posicionaron a favor del Carlismo. No así en el conjunto de España, pues donde el liberalismo se impuso a favor de Isabel II, las jerarquías media y alta de la Iglesia apoyaron a la nueva reina.

En el País Vasco, el universo religioso así como gran parte de la población fueron favorables, en gran medida, al pretendiente Carlos, a excepción de las capitales vascas, la Ribera navarra y la Navarra oriental y otras zonas periféricas.

ANDOAIN: GUNE ESTRATEGIKOA

Andoain udalerria gune estrategiko gertatu ohi da Gipuzkoa barruko joanetorri eta komunikabideei dagokienez, bereziki Donostia lurraldeko gainerako herriekin lotzeko garaian. Lehenengo karlistaldian ere borroka-lerro izan zen, Oria eta Leitzaran ibaiek eutsi egiten baitzioten alde batetik bestera ibili nahi zuen orori.

Liberalek bere Donostiako setiotik atera eta lurraldean aurrera egin nahi izan zutenean, Hernani bere mende hartu zuten baina Andoaindik aurrera ez zuten lortu bere burua finkatzea. Hortxe sortu zen, Andoainen, Euskal Herriko karlistaldian gertatuko ziren guduetako gogorrenetakoa eta behin karlistek irabazi ondoren gudalerroa hortxe finkatu zuten, Andoainen, gerra amaitu arte Bergarako besarkadaz.

Beraz, Andoain borroka eta gudu jakin baten agertoki izateaz gain lurralde guztiz militarizatua izan zen bost bat urtez.

ANDOAIN: ESPACIO ESTRATÉGICO

El municipio de Andoain es un punto estratégico en cuanto a vías de comunicación y transporte dentro de Gipuzkoa, especialmente a la hora de conectar San Sebastián con el resto del territorio. Durante la primera guerra carlista terminó siendo, por ello, línea del frente, dado que los ríos Oria y Leitzaran hacían de trincheras naturales ante cualquier desplazamiento.

Cuando las tropas liberares quisieron salir de su asedio en San Sebastián y avanzar en el territorio, tomaron primero Hernani bajo su dominio, pero a partir de Andoain no consiguieron consolidar su posición. Ahí se gestó, en nuestras calles, una de las batallas más cruentas que se libraron durante la guerra carlista de Euskal Herria y, una vez ganada por los carlistas, se estableció en Andoain la línea del frente, que perdudaría hasta la finalización de la guerra con el abrazo de Bergara.

Por lo tanto, durante unos cinco años Andoain pasó a ser un territorio militarizado.

BORTXAKERIA

Lehenengo karlistaldian gertatu zen indarkeria eta bortxakeria neurri handia ulertzeko, borrokan nortzuk aritu ziren aipatu behar da eta nola aritu ziren.

Bada, karlisten artean asko eta asko boluntarioak ziren, matxinada baten iraupena zuen borrokan parte hartzeko prest azaldu zirenak.

Liberalek funtsean Espainian barrena sakabanaturiko gudaroste erregularreko tropak ekarri zituzten.

Baina, gainera, liberalek atzerriko beste herrialde batzuen laguntza izan zuten, bereziki, Erresuma Batuarena. Bertatik *Legio britainiarra* deiturikoa bidali zuten, ingeles, irlandar eta eskoziarrek osatua, 7.500 gizon inguru, horietako asko soldata on baten itxaropenaz edo bestelako zigorrik saihestearren borrokara etortzeko izena eman zutenak.

Legio britainiarrak Euskal Herrian barrena egin zituen hilabeteetan arazo handiak eman zituen babestera etorri zen tokietan: hilabeteak igaro zituzten zentimorik ikusi gabe eta maiz jantzi egokirik gabe edo zapatarik gabe, oinutsik...

Horrek, lehendik agertzen zuten bortxakeria maila handia neurriz kanporaino eraman zuen eta oso arriskutsu bihurtu zituen, baita adiskide zituzten liberalen artean ere. Donostiako herriak, esate baterako, diru-bilketa egin zuen hiritarren artean itsasontzia antolatu eta Erresuma Batura bueltan bidaltzeko...

Andoain aldera aurreratu zirenean Hernanitik, bidean topatzen zuten guztiarekin bortxakeria handia erabili zuten, emakume zein gizaseme, azienda, ondasun, baserri eta etxe, uztak... Guztia zuten jomuga eta helburu. Andoainen 50 baserri erre eta lapurtu zituzten.

VIOLENCIA

Para entender el alto índice de violencia con que se desarrolló la primera guerra carlista, hay que mencionar someramente quiénes lucharon y cómo lo hicieron.

Pues bien, entre los carlistas muchos eran voluntarios, que se alistaban dispuestos a participar en una lucha que pensaban duraría lo que una sublevación.

Los liberales recurrieron en el País Vasco a tropas de ejército regular, destacadas desde distintos puntos de España.

Además, los liberales contaron con la ayuda de otros países extranjeros, especialmente del Reino Unido. Allí se organizó la llamada *Legión británica*, compuesta por ingleses, irlandeses y escoceses, alrededor de 7.500 hombres, muchos de los cuales se alistaron con la esperanza de un buen sueldo o como eximente de alguna pena de presidio.

Durante los meses que la Legión Británica recorrió el País Vasco planteó gravísimos problemas de orden público allá donde se acuarteló. Pasaron meses sin ver un céntimo del sueldo prometido y, con frecuencia, no dispusieron de vestuario adecuado o de calzado, permaneciendo semi-descalzos.

Ello aumentó el alto grado de violencia inherente ya de por sí a este tipo de tropa y los hizo muy peligrosos, incluso entre los liberales amigos. El vecindario de San Sebastián, por ejemplo, se vio obligado a recaudar fondos para fletar un barco que los trasladara de vuelta al Reino Unido. Gran parte de ellos embarcaron.

Quienes permanecieron aquí, durante el avance sobre Andoain desde Hernani, hicieron gala de gran violencia con todo lo que encontraban a su paso: mujeres y hombres, ganado, bienes, caseríos y casas, cosechas... Ni cenizas dejaron tras su paso por los caseríos que incendiaron en Andoain.